

Gure gogo eta eskea beste hau da: datozen lau urteotan Reagan-ek Nikaragua ardiarentzat otso izateari utzi diezaiola. Eta Nikaraguako indar politiko ezberdinen arteko elkarriketa onartu eta euskarritu dezala, pobreen demokrazia berria normalduz joateko eta Herri librea aniztasunean eta bakean eraikitzeko. Amets hutsa? Herri bizi baten erresistentzian oinarritzen dugun esperantza. ■ *Paulo Agirrebaltzategi.*

## Torturaren kontua berriz ere

Amnestyren informarekin berriro agertu da: Espainian torturatu egiten da. Bagenekien, denok ondo genekien, eta komeria tonto bat ematen du, hemen mundu guztiak Amnestyk Londonen urrutitik baino askoz lehenago, gehiago eta hobeto badakiguna, «notizia» bihurtuta ikusteak, Amnestyk esan duelako. Horrelaxe funtzionatzen da prentsan eta politikan. Iturri hobia eta sinesgarriagoa da nonbait Londongo bulego bat, «neutrala» edo omen dena, bertoko hainbat jenderen eguneroko esperientzia eta salaketak baino.

Torturaren informazio-iturriak, ordea, ez dauka «neutrala» izaterik. Torturatua bera bakarrik izan daiteke iturria, Amnestyk berak ez dauka beste ituririk, eta iturri hori hemen baldin badago, zergatik Herriaren Defendariak, prentsak, politikoez ez dute bilatzen dagoen tokian?

Arazo hauetan, esan beharra dago, «neutralitatean» oinarritu eta fidatu nahi izaten duena, objektiboa izateko itxuraren azpian, hipokrita bat dela.

Mila esker Amnestyri. Baina, nahiz alfer-alferrik izan, aldizkari honetatik berriro salatu beharrean gaude: torturaren arazolari hipokrisia hutsezko tratamendurik lotsagarriena ematen zaio aspaldian, demokrazia honetan, Barne Ministraritzatik prentsaraino, eta euskal jendea bera hasita dago, tratamendu «ofizial» hipokrita horren antzera erreakzionatzen. ■ *Joxe A. Otaegi.*

## E. Amezaga: Autores Vascos

Eguneroko prentsatik jakin ahal izan dugunez, Elias Amezaga idazle euskotarren bibliografia luze, ahalik oso, bat publi-